

## Lasarte-Oriako alkate berria da Jesus Zaballos gaztea

Ezustekorik ez zen egon ostiraleko udalbatzarrean eta PSOE-EE alderdiko hautagaia izendatu zuten alkate



Jesus Mari Zaballos herriko alkate berria aginte makila eta alkate bandarekin. Izendapenaren ondoren lehenengo diskurtsoa eskaini zuen alkatearen aulkitik.

Udalbatzar aretoa lepo zegoen ostiral goizean, PSOE-EE alderdiko ordezkariak, herriko afiliatuek, herritarrek eta bere senideek ez zuten Jesus Mari Zaballosen alkate izendapena galdu nahi.

Jarduneko alkateak Iñaki Mugikak, Batzarra ireki eta PSOE-EEko alderdiko hautagaia Jesus Mari Zaballos izanongo zela jakinarazi zuen.

Oposizio alderdiei ordezkariak aurkezten zuten galdetu eta hauen ezezkioa izan ostean, Udalbatzarrak Jesus Zaballos alkate bezala onartzeko bozketa egin zuen.

Zinegotziak banaka, idazkariak deituta bere bozka egin eta zortzi boto izan ziren Zaballosen alde, beste bederatzik, aldiz, zuriak. Hala ere, PSOE-EE hauteskundeetan

zerrenda bozkatuena izanagatik, bere ordezkariak alkate kargua lortu zuen.

Karguaren zina egin zuen Zaballosek eta Ana Urchueguiak aginte makila eman eta banda jantzi zion.

### Diskurtsoa

Ostean, alkate bezala, bere lehenengo diskurtsoa egin zuen, euskaraz eta gaztelerez.

"Oso eskertua nago eta ilusioz bete gaur eman didaten betekizunarengatik eta, era berean, kontziente naiz niregan hartzen dudana erantzukizunaz," adierazi zuen.

Egun hauetan jendearen hurbiltasuna izan duela eta eskerrak eman zizkion Ana Urchueguiari, "Nire herriko alkate bezala ezagutu nuen lehenengo, alderdikide bezala

ondoren eta, azkenik, korporazio honetako kide eta bere kolaboratzaile gisa."

Froilan Elespe gogora ekarri zuen, alderdi kideei eskerak eman dizkie beregan izan duten konfidantzaarengatik eta urte hauetan eman dioten babesarengatik.

24 urte hauetan korporazio desberdinek egingako lana eskertu zuen eta Udal langileei zuzenduz "guztien ekarpena, zuen konplizitatea eta zuen konpromisoa ezinbestekoak dira etorkizuneko motor hori izaten jarraitzeko. Deialdia luzatzen dizuet enpresa eraldatzaile honi eusteko," adierazi zuen.

"Gaur egiten dugun aldaketa ez da bukaera. Geldiune bat da indarrak hartu eta jarraitzeko. Egingakoa aztertu


eta autokritika egiteko," aipatu zuen alkate berriak.

Oposizioari eskua zabaldu eta krisi garai honetan, denon lanarekin proiektuak aurrera aterako direnaren ustea agertu du.

Herriari ere zuzendu zitzaion, "Lasarte-Oriako alkatea naiz, baina Lasarte-Oriako jendearen alkatea izan nahi dut," esan zuen eta "udalak ezin du guztia egin, baina guztiarengatik arduratu behar da. Herritarrei gertatzen zaie-naren berri jakin behar dugu" azpimarratu zuen.

### Elkarrizketa

Aldizkari honetako, 4. eta 5. orrialdean, alkate berriak, Jesus Mari Zaballosek Txintxarri eskaintako elkarrizketa irakurri dezakezue. •



**Hitzaren jolasa, musikaren koloretan saioa, goxoa izan zen**

Arrieskalleta elkartera larunbatean hurbildu ziren bertsozaleak saio politaz gozatu zuten. Maialen Lujanbiok eta Uxue Alberdik bere trebetasuna erakutsi zuten eta Unai Muñok jarritako gaiei ongi erantzun zieten. /6

### EUSKARA /2

**Munteri-AEK euskaltegian aromaterapiako tailerra egin zuten asteazkenean**

### GIZARTEA /3

**Elkartuz Lasarte-Oriako Herritarren Plataformaren egitasmo berria**

### GIZARTEA/3

**Herriko hainbat harategik poltsa ekologikoak banatuko dituzte**



**Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN**

**ESTUDIOKO erreportajeak makina DIGITALAK  
30X90 neurrirainoko ANPLAZIO DIGITALAK  
Markoak jartzeko tailerra**

**EZKONTZETAKO erreportaje  
PREDIGITALAK**



*Jaunartzeko liburu Digitalak*

# Txotx eta aromaterapia Muntteri-n

Bakailua, txuleta eta sagardoa harremanak sendotzeko, eta Aromaterapia, ajea kentzeko

Euskara ikastea aditzak eta ariketak baino gehiago da. Ikasketa soilak ez du beti bere helburua lortzen, eta hori argi daukate Muntteri-AEK-n. Afaritan eta tailerretan ere euskaraz aritu gaitzake, euskarak badu dibertimendurako toki zabala, argi eduki behar da hori hizkuntza berri bat irakastea, hizkuntza berriaren erabilera hezkuntza sistematik kanpora atera eta bere osotasunezko esparrua erakutsi behar dela, alegia.

## TXINTXARRI

**E**stresa ona da gure bizitzan. Estresak mugiarazten gaitu, gure bizitzaren oreka mantentzen laguntzen eta "biziraupena ematen digu" azaldu digu Itziar Salegi Aromaterapeutak. Hala ere, neurri batzuen barnean mantendu behar da, bestela oreka puskatu daiteke eta gaixotasun fisiko edo depresiorako joera hartu dezakegu. "Estresa energia da, gure eguneroko gauzak egiteko indarra ematen diguna" gaineratzen du.

Estresari buruz eta honek gure egunerokotasunean duen garrantzia azaldu zituen Itziar Salegi Muntteri-AEK-n emandako Aromaterapia tailerretan.

Sendabelar estraktuak, gure egunerokotasunean izan ditzakegun gaitzak hobeto

eramaten lagundu gaitzake. Erromeroak adibidez ormonetan indarra ematen du, "beraz goizean erabiltzea komeni da" aipatzen du Salegik. Halaber, memoria eta kontzentrazioa lantzen lagungarria da, garuna estimulatzeko duelako "parranda eta gero, ajerako ona da erromeroa".

Menta freskagarriak garunari garbitasuna ematen dio eta "izpiliku eta erromeroarekin nahastuz buruko minari agur esango diogu".

Argibideak entzun eta gero martxan jarri ziren. Tailerretan parte hartutako ikasle guztiak entzundako guztiak praktikan jarri eta euren baltsamua egitera pasa ziren. Bakoitzak zein gaitz sendatzeko baltsamua nahi zuen erabaki eta Salegiren laguntzarekin egi bihurtu zuten.

## Parrandan ere euskaraz

Sagardotegiak eta euskal ohi-turak elkar hartuta daudela ezin uka daiteke. Beraz, euskara ikasten ari direnentzat ze hobe gure herriko kultura zaharretan barneratzea baino.

Gainera, ezagutzeaz aparte ondo afaldu eta ondo edaten badugu, plan bikaina! Otsailaren 26an Otegi Sagardotegia bisitatu zuten Muntteri-AEK-ko ikasleak, eta nola ez, irakasleek ere. Guztira 20 lagun.

Bakailu tortila, bakailo piperrekin, txuleta, gazta eta intxaurrek. Guzti hau ondo liseritzeko, sagardo goxoa!

Euskara ez da gela hotz eta karratuetan praktikatzeko, euskara esparru zabala eta anitza du! Txotxarekin lagunduta gainera, jariatzen aritu ziren ikasleak!

## 1.000 euroko soldata

Urtero AEK antolatzen duen zozketan parte hartu duzue, hartu dezimoa eta begiratu, agian urte oso batean zehar, hilabetero 1.000 euroko soldata irabazi duzue. 00065 izan da txartel sariduna. Irabazlerik agertu ezean, martxoaren 26an errepikatuko da zozketa. •



Euskara ikasteaz gain, lagun onak egiten dituzte ikasleak, eta horren isla sagardotegian bizi zute giro alai



Itziar Salegi Aromaterapeutak esentzia ezberdinak zertarako balio duten azaldu eta gero, bakoitzak nahi zuen erremediorako berea sortu zuen.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Robert Expet kontratenoreak emanaldi klasiko, zein modernoetan parte hartzen du. Arg.: Robert Experten web gunea

## Expert kontratenorea Brigitarren komentuan

Danok Kide elkarteak antolatu dituen V. Musika Topaketen barruan, ostirala honetan, martxoaren 12an, arratsaldeko 19:30etan Brigitarren komentuan kontra-tenore frantses ezagun honen ahotsa eta trebezia entzuteko aukera paregabea egongo da.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "Ainhoa Merzero sopranoari esker, lortu dugu Robert Expert-ek Lasarte-Orian kontzertua ematea. Donostiako Francisco Escudero kontserbatoriora ikastaro bat ematera dator eta kontzerturen bat eskaini nahi zuela aipatu zigun Ainhoak. Guk ez genuen aukera galduko".

Era berean, antolatzaileek

eskerrak eman nahi dizkiote Lasarte-Oriako Udalarari pianoa uzteagatik.

### Kontzertua

Alberto Saez Puente piano jolearen eta momentu batzuetan Ainhoa Merzero sopranoaren laguntzaz, Frantziako abesti herrikoiak, zein egile handien abesti eta opera desberdinen zatiak eta duetoak eskainiko ditu.

Brigitarren komentua hurbilduko direnek, Haendelen Julio Cesar en Egipto operako zatiak, J.S.Bachen La pasión según San Juan-ekoak edo H. Purcellen Sound of trumpet entzungo dituzte kontra-tenore honen ahotsean.

### Robert Expert

Pariseko Goi mailako Musika kontserbatorio nazionalako lehen saria eskuratu zuen Robert Expertek.

Estatu frantsesean hainbat sari lortu ditu kontra-tenoreak, baita nazioarteko beste lehiaketetan ere, hala nola, Milano Scalako As.Li.Co.

Operak, pasioak, abesti barrokoak, zein XVI eta XVII. mendekoak eskaini ditu abeslari frantsesak mundu osoko antzokietan.

Irakaskuntzan ere dihardu. Irakaslea da Bobignyko kontserbatorioan eta Pariseko Goi mailako Musika kontserbatorio nazionalan. Espainian ikastaro ugari eskaini ditu.

### EUSKARA

## Gidabaimena euskaraz ateratzea merkeago izan daiteke

Hemendik aurrera, gidabaimena euskaraz ateratzea erabakitzen duten Buruntzaldeko herritarrek agiri hori merkeago lortu ahal izateko aukera paregabea izango dute.

Izan ere, Buruntzaldeko Udalek egitasmoan parte hartzen duten auto-eskola bakoitzeko azterketa teoriko bat zozketatuko baitute gidabaimena euskaraz ateratzera animatzen diren herritarren artean.

Interesatuak zozketarako baldintzak eta gainerako xehetasunak Buruntzaldeko Udalek auto-eskoletan utzi dituzten esku-urrietan aurkituko dituzte. •

### HAITI

## Udal Musika Eskolako trikitilariak Haitiren aldeko kontzertuan Lezon

Lasarte-Oriako Musika eskolak *Musika eskolak Haitiren alde* egitasmoan parte hartuko du larunbata honetan Lezon.

Musika eskolako trikitilariak 12:00etan hasten den kalejiran ikusteko aukera egongo da, baina ekitaldi nagusia Gipuzkoako Musika Eskoletako abesbatzak batzen dituen kontzertua izango da Saldise plazan. Oscar Estangaren zuzendaritzapean, abesti herrikoak eskainiko dituzte, hala nola, Xarmangarria zira, Agurra, Axuri Beltza edo Andre Madalen.

Ekintza Lesoinu programazioaren barruan dago kokatuta, eta Haitirentzako laguntza Gurutze Gorriak bideratuko da.

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak gonbitea luzatzen die herritarrei Lezon goiza pasa eta Haitiko herriari elkartasuna adierazteko aukera paregabea delako. •

### LANAK

## Atsobarreko zahar egoitzako eraberritze lanak hasi dira

Lehenengo astelehenean, martxoaren 1an, Atsobakar egoitza eraberritzeko lanak hasi ziren. Honi esker, hiru onura garrantzitsu izango ditu egoitzak: zentroaren erreforma orokorra, Psikogeriatriko Unitate baten sorrera eta Eguneko Zentroa handitzea.

Adinekoen beharrak asetzeko eta beren bizi-kalitatea hobetzeko apustua da hau eta, proiektuak aurreikusten duenaren arabera, eraikina handitu eta altzariak bertan bizi direnen beharretara egokitu dira.

Udalak jakin arazi digunez, proiektu guztia planifikatua dago zahar egoitzako erabiltzaileei arazorik ez sortzeko, beraz, zahar egoitzako ohiko zerbitzuak eskainiko dira. •

## Elkartuz Lasarte-Oriako Herritarren Plataformaren egitasmo berria

Lasarte-Oria Herritar Plataforma herritarren errealtatera hurbildu nahian, proiektu berri bat aurkeztu du *Elkartuz*.

Proiektu honen helburua, herriko elkarteek dituzten arazoak jakin eta horiek konponetzen laguntzea da.

Plataformak jakin arazten duenez, "auzo auzo jarritako standak izan zuen harrera ona ikusirik, beste pauso bat ematea erabaki dugu."

"Plataformak asoziazionismoan uste osoa du. Hori baita, erantzun kolektiboaren bidez, indarrak batu eta idealak elkarbanatzeko modua, baita gizartearen isla den eta jarraipena duen herritarren partaidetzarako tresna ere," adierazten dute.

### Herriko elkarteekin batu

LOHP alderdiak "garrantzia

handia ematen die talde ekimenei", horregatik Plataformak ez duela elkarteekin banaka haien arazoez hitz egingo zaizkizala du.

Herriko arazoak antzeko ekintza duten elkarteekin jorratuko dituzte eztabaida gune desberdinetan.

"Elkarte hauek autoritate eta tokiko-erregimena, erabiltzaile, herri ohitura eta, kasu batzuetan, azpiegiturak ere berdinak dituzte, beraz, arazoak eta horien konponbideak ere berdinak izan daitezke," adierazi dute.

Lehenengo bilera, ostegunean martxoaren 4an, egin zuten auzo elkarteekin.

Hurrengoak, jakin arazi dutenez, besteak beste, kirol elkarteekin, elkarte kulturalen edo gastronomikoekin egingo ditu Plataformak. •



## Herriko zenbait harategik poltsa ekologikoak banatuko dituzte.

Ostiralean egin zuten banatuko duten poltsa berriaren aurkezpena herriko harakinek. Udalaren laguntzarekin, material birziklatuarekin egindako poltsa ekologikoak banatuko dituzte herritarren artean. Aurkezpenean ekimenean parte hartuko duten kideak bildu ziren: Etxezarreta harategiko Xabier Etxezarreta, Okelako Mikel Olasagasti, Jesus Mari Otermin eta Marian Maya, Patxi Larrañagatik Ana Iparragirre, Juan Mari harategitik Juan Mari Oyarzabal, Arsuagatik Jose Beitia, Aralar harategitik Iñaki Arregi, Super Javier Ugaritik Miguel Diaz eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskarako Batzordeko burua den Ricardo Ortega. Irailetik dabilta ekimen honekin, plastikozko poltsak murrizteko beharra ikusten zuten hondakin gutxiago sortzeko eta poltsa ekologikoak banatzea otu zitzaizkien.

Martxoaren 11tik aurrera, ostegunetik aurrera alegia, poltsa ekologikoa eskuratu daiteke aipatutako harategietan eginez gero erosketa. Guztira 3.000 poltsa banatuko dituzte herritarren artean. •







Uxuek, Maialenek eta Eñautek bertso eta musika nahastu zituzten saioako momentu batzuetan.

Arg:A. Ramos



Arrieskalleta elkartearen bertso zaleek ederki gozatu zuten. Arg:A. Ramos



Uxuek eta Maialenek ederki erantzun zieten gai xelebreei. Arg:A. Ramos



Eñautek Ken Zapzi taldeko doinuak, zein beste aberti batzuk eskaini zituen. Arg:A. Ramos

# Bertso afari paregabea Arrieskalletakoa

Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi ederki aritu ziren bertsozaleen gozamenerako

## TXINTXARRI

Larunbatean Arrieskalleta elkartera bertaratu ziren bertsozaleen gozagarri izan zen Maialen Lujanbio Bertso txapelketa Nagusko irabazleak eta Uxue Alberdik egindako saioa.

Hernani eta Elgoibarreko bertsolariak, Unai Muñoa izan zuten gidari eta Eñaut Elorrieta Ken Zapzi taldeko abeslariak lagundu zien gitarrarekin saioaren momentu batzuetan.

*Hitzaren jolasa, musikaren koloretan* saioa, goxoa izan zen eta, momentu batzuetan, ikusleen artean barre-algarak sortu zituen.

Eñautek berak eman zion hasiera saioari.

Jarraian Unai Muñoak lehengo lan gisa Lasarterekiko duten lotura azaltzea eskatu zien bertsolariari eta afarian jan gabeko arraizopza, dastatutako euskal txerria, Martxoak 8-a eta alkate-ohia hartu zituzten gaitzat, besteak beste.

### Ofiziotan gai xelebreek

Eñauten txanda heldu zen berriro eta ondoren, ofiziotan

gardun ziren berriro.

Uxue eta Maialen pertsona bera ziren baina Uxue zen pertsona hori bera zela uste zuena eta Maialen benetan zena.

Unai Muñoak gai xelebrea bat jarri zien segidan, "bikote zarete eta zuen larrualdiak grabatzeko ohitura duzue. Sofan grabatutako azkenari begira zaudetela ohartu zarete norbait zelatan duzuela." Ale ederraz jositako bertsoaldia izan zen.

### Abestiak eta sedukzioa

Beranduago Eñautek *L'estaca* izeneko kanta famatua abestu zuen katalanez eta Uxuek abesti hau gaitzat hartuta osatu zituen hurrengo hiru bertsoak. Hauen atzetik Maialen jardun zen bakarka.

Segidan iritsi zen saioaren une gorena. Muñoak hala eskatuta seduzitzeko estrategiak azaleratu eta elkar seduzitzen aritu ziren bi bertsolariak.

Bertsoaldi hauetan Ken zapzi-ren *Ilargia* abestia hartu zuten doinutzat eta Eñauten gitarraren laguntza izan zuten.

Grabitate indarra aipatu zuten une batean eta egia da

entzuleak erakartzea lortu zutela.

### Gizon motak eta bertso idatziak

Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna gertu izanda maskulinitasuna eta femininitasuna aipatu zituen Muñoak eta zenbat gizon mota ezberdin dauden galdetu zien Uxue eta Maialeni.

Mota hauek azaltzeko entzuleen arteko gizona zuek baliatu ziren bi bertsolariak eta irri ugari lapurtu zituzten bertso hauekin.

Bertso idatzien txanda heldu zen ondoren. Uxuek idatzi eta ahotsa jarri zien, musika, aldiz, Eñaut Elorrietak. Oilo azala jartzeko modukoak izan ziren.

Abeslariak *Zapalduen olerkia* hautatu zuen beranduago abesteko.

Bukaera, *Itsasoari begira* kantu ezagunaren doinuaren eman zuten.

Saioa borobildu zuten horrela eta ale politik utzi zituzten. Maialenek "askatasuna eta haizea ez dabilta libre hemen baina kantuan ai geranean izaten gera askeen" eta Uxuek "azken arnasa ez da izango, ezetz, bai zera, bai zera, hola elkartzan gero aldirio arnasberritzen baigera."


Errepublikatzeko moduko saioa izan zen. •

*Seduzitzeko estrategiak azaleratu eta elkar seduzitzen aritu ziren bi bertsolariak*

Egunero

**Erakusketa**

Alvaro Ledesmanen ESPEKTRO-  
AK izeneko margoen erakus-  
keta. Jalgi kafe-antzokian,  
egun osoan zehar.



Osteguna, 11


**Mahaingurua**

KUDEATUZ egitasmoaren inguru-  
rako mahaingurua. Kulture-  
txean, 18:30ean.

Ostirala, 12

**Kontzertua**

ROBERT EXPERT KONTRATENOREA-  
ren emanaldia Danok Kideren  
V. Musika Topaketen barruan.  
Expertekin batera Alberto  
Saez Puente pianoan eta Ain-  
hoa Merzero sopranoa ere ari-  
tuko dira. Brigitarren  
komentua, 19:30ean.



Clint Eastwood aktorearen  
*Gran Torino* filma ostegunean

GRAN TORINO filma eskainiko du Okendo Zinema Taldeak.  
Clint Eastwood aktore amerikarrak zuzendu eta parte hartu  
du film honetan. Film honetako protagonista Walt da,  
agure zakarra eta molde zaharrekoa. Bere emaztea hil  
ondoren, izakera garratzagoa bihurtzen zaio eta gainera  
auzoa korearrez bete zaio eta ez dio grazia handirik egiten  
horrek. Bere kontsolamendu bakarra, bere autoa da, Gran  
Torino bat, maitasun handiz zaintzen duena.

OSTEGUNEAN, HILAREN 11N  
KULTURETXEAN 21:30EAN  
SARRERA, 4,15 EURO, GAZTELANIAZ

**Bakarrizketa**

KIKE BIGURIK antzezleak baka-  
rrizketak eskainiko du Gazte-  
ria sailak eta Xpression kultur  
elkartek antolatzen dituzten  
Gazteentzako emanaldietan.  
Musikaz gain, tarteka kafe  
antzerkia eskainiko dute. Kul-  
turetxeko kafetegian,  
20:00etan, GAZTELANIAZ.



Larunbata, 13

**Antzerkia**

UHARTE EZEZAGUNA haurrentza-  
ko antzezlana Markeliñe tal-  
dearen eskutik. Sarrera, 3, 15  
euro. Manuel Lekuona kultu-  
retxean, 18:00etan.



Igandea, 14

**Zinea**

PERCY JACKSON Y EL LADRÓN DEL  
RAYO haurrentzako filma.  
Sarrera, 3, 15 euro. Manuel  
Lekuona kulturetxean,  
17:00etan.



Asteazkena, 17

**Hitzaldia**

PILAR SEMINARIOREN hitzaldia.  
Manuel Lekuona kulture-  
txean, 18:00etan.

Ostirala, 19

**Kontzertua**

AUPA QUARTET, Bartzelonako  
soka laukotearen emanaldia.  
Jalgi kafe-antzokian,  
23:00etan.



Ostirala, 26

**Jam sesioa**

THE BILLIE JEANS (funk, soul...)  
taldea izango da gonbidatua.  
Jalgi kafe-antzokian,  
23:00etatik aurrera.



Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzte  
ostiralero 9:45etik 11:45era

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan,  
ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

**Oharrak**

**Hirigintzako departamen-  
tua Ganbo kalean**

Lasarte-Oriako udalak gogora  
arazi nahi du Obrak eta Hiri-  
gintza sailaren zerbitzua  
publikoarentzat irekita dagoe-  
la Ganbo Kaleko 1. zenba-  
kian. Kokaleku berri honetan  
joan den otsailaren 22tik  
daude, behin-behinean, harik  
eta "Udaletxea eraberritzeko  
eta handitzeko" obrak amaiz-  
tzen diren arte.

**Udako Txokoak 2009ko  
begiraleentzat**

Udako Txokotan, 2009an,  
begirale bezala ibili direnen-  
tzako martxoaren 13an hainbat  
ekintza antolatu dira. Interesa  
dutenek asteazkenera arte dute  
izena emateko epea. Horreta-  
rako bidali mezua aisia@tta-

kun.com helbidera edo deitu  
943 371448 telefonora.

**Aste Santuko Txokoak**

Ttakuneko Aisia Sailak jakina-  
razi nahi du irekita duela Aste  
Santuko Txokotako matrikula  
egiteko epea. Txokotan 2001  
eta 2007 urte bitartean jaiota-  
koek hartu dezakete parte eta  
izena emateko azken eguna  
martxoaren 24a da.

Informazioa gehiago  
duzue duzu Ttakuneko bule-  
goan (Geltoki kalea 4, 943  
371448) edo www.ttakun.com  
web atarian.

**Udaltzainek jasotako  
gauzak**

Udaltzainen bulegoak herriko  
bizilagunei jakinarazten die  
ondoko gauza hauek dauzka-

tela jasota, argazki kamara,  
urrezko eskumuturrekoa,  
diru-zorroa, urrezko katea,  
zilarrezko zintzilarioa,  
Nokia markako mugikorra,  
Festina markako eskumuturre-  
ko erlojua, Suzuki markako  
motozikleta kaskoa, zilarrez-  
ko belarritakoak, betaurreko  
graduatuak eta betaurreko  
graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaz-  
tzen duten herritarrek, hila-  
beteko epean jaso behar  
dituzte. Horrela izan ezean,  
legeak ezarritako norakoa  
emango diete.

Horietakoren bat ikuska-  
tzeko interesaturik dauden  
persona guztiei arren eska-  
retzen zaie Udaltzainen Bule-  
gora hurbil daitezela,  
09:00etatik 13:00etara.

**6 Nazioak Errugbyko porra**

Beltzak Errugby taldeak 6  
Nazioak lehiaketako porra  
antolatu du. Saikapeneko 6  
postuak asmatzen dituztenen  
artean, Jalai tabernan bi perso-  
nentzako afaria eta Zigako  
landa-etxean 2 pertsonentzako  
astrburu pasa zozketatuko dira.

4. jardunaldiara arte, hau  
da, martxoaren 13ra arte dago  
porra egitea. Aldatzekua,  
Txema taberna, Gure etxea,  
Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa,  
Xirimiri eta Udaberri taberna-  
tan porrako txartelak eskura-  
garri daude. Anima zaitzete!

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia  
eta nahi duzuna  
adierazteko atal  
aproposa. Bidali edo  
zuzenean ekarri  
TXINTXARRI aldizkarira.  
Horretarako aukera  
desberdinak dituzu;  
telefonoz, 943 366858  
zenbakira deituta, posta  
elektroniko z  
txintxarri@txintxarri.info  
helbidera bidaliaz. Gure  
bulegora ekarriaz  
(Geltoki kalea 4).



# Berdintasunaren aldeko pauso ugari Emakumearen Nazioarteko Egunean

■ Publizitatean eta lanean emakumeen papera salatuko du Zentro Zibikoak ■ Udalak adierazpen ofiziala argitaratu du ■ Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian dabil

Martxoak 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, emakumezkoek bizi dituzten arazo eta gizartean jokatzeko duten paperari buruzko hausnarketa, ekitaldi, adierazpen eta salaketa ugari burutzen ari dira egun hauetan. Lasarte-Orian ere aldarrikapen horiek badaukate lekurik. Goizean, Brigidarren plazan Collage bat egingo dute emakumeek, batetik publizitatean jokatzeko duten papera aztertzeko eta bestetik lan merkatuan gizonetik dauden aldeak salatuz. Lasarte-Oriako Udalak bere aldetik, gai honetaz adierazpen instituzionala kaleratu du. Bestalde, gaur astelehena Iruñetik aterako den Emakumearen Mundu Martxa, ostegunean pasatuko da Lasarte-Oriatik, iluntzean afaria eta ikuskizunak izango dira Oreetan eta larunbatean, 13an, bukatuko da Iruñean.

Jon ALTUNA

**E**makumearen Zentro Zibikoak zenbait ekitaldi antolatu ditu Emakumearen Nazioarteko Eguna berekin batera eta hain juxtu gaur, martxoak 8, ekimen hori mundu osoan ospatzen den egunean, goizeko 10:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etara bitartean collage bat egingo dute Brigidarren plazan egunkarietako, aldizkarietako eta telebistako iragarkiak erabiliz.

Ekintza honen bidez gizonzkoek eta emakumezkoek gizarteko zenbait arlotan jokatzeko duten papera aztertuko da eta ikusleek gaiaren inguruan pentsarazteko helburuarekin. Batetik gizon eta emakumeek publizitatean jokatzeko duten papera landuko dute eta ondoren gauza bera egingo da lan eskaintzean, emakumezkoak eta gizonzkoak kontratatzerakoan dauden ezberdintasunak salatuko dira, alegia.

Zentro Zibikoak aurten antolatu duen egitarau zabala gaur arratsaldean eskainiko den zine emanaldi batekin amaituko da. Arratsaldeko 17:00etan Niki Caro zuzendariaren "En tierra de hombres" filma eskainiko dute Zentro Zibikoan.

Ostiralean Zentroko emakumeek jai eguna izan zuten, batetik 19:30ean EPAko antzerki taldeak Rafael Mendizabalen "Nos tocó la primitiva" antzerki lana eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean eta ondoren Lasarte-Oriako emakumeak afari herrikoian elkartu ziren Txixardiin Beltxa jatetxean.

Lasarte-Oriako Udalak bestalde, martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta adierazpen instituzionala eman du jakitera, zera adieraziz, "emakume eta gizonen eskubideak oso-osorik eta berdinduz bermatu behar direla, eta bizitzan hain garrantzitsua den garai hori landu behar dela, gizon eta emakumeen arteko jarrera positibo eta berdintasunekoak finkatzeko, betiere, emakumeek berdintasunean oinarrituta gauza dezaten beraien herritartasuna".

## Udalaren konpromisoa

Eta horretarako Lasarte-Oriako Udalak "Konpromisoa hartzen du, orain inoiz baino gehiago, berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako tokiko politikak sendotzeko, bereziki neska gazte eta nerabeen begira, euren partaidetza aktiboa sustatuz helburu hauen lorpenerako".

Aurten Udalaren adierazpenak gazteen parte hartzean jarri du arreta, gazteen artean desberdintasuna eragiten duten jokabideei aurre egiteko eta bereziki emakume gazteentzako, bere ustez, hauek etorkizunean oinarrituko erronka izango baitute aurrekoek egindako lanari bultzada ematen.

Udalak nabarmentzen du "errealitate berri" bati egin

*Goizeko 10etatik 12etara publizitatean emakumeek jokatzeko duten papera eta lan merkatuan dauden desberdintasunak salatuko dira Brigidarren plazan*



Ekimenekin hasteko, "Nos tocó la primitiva" antzerki lan umoretsua eskaini zuten EPAko antzerki taldeko lagunek.

## Arratsaldeko 17:00etan Niki Caro zuzendariaren "En tierra de hombres" filma eskainiko da Zentro Zibikoan

beharko diotela aurre: "Izan ere, desberdintasun adierazpenak sarritan zorrotzagoak dira eta itxuraz berdintasunean oinarritutako errealitatea bizi dute". Udalak adierazten du nerabearoan egindako ikerketetan ikusi denez jokabide sexistak daude, berdintasun urriko ohiko rolak errepikatzen dira, eraso matxistak ugaritu dira eta horiek identifikatzeko zailtasunak daude.

## Emakumeen Martxa

Bestalde, Euskal Herria morez margotzeko deia luzatu du Emakumeen Mundu Martxa bultzatzen ari den plataformak. Gaur bertan aterako da martxa Iruñetik eta martxoaren 13an bertan bukatuko da.

Herriz herri ibiliko da martxa, toki guztietan Testigantza Liburua pasako da eskuz esku, errelebo guztietan mural bat marraztuko da eta guztiak bilduko dira Iruñean, larunbatean egingo den manifestazio eta festa handian. Mundu Martxa urrian bukatuko da Kongoko Sud Kiwun. Bertara eramango dituzte hemengo martxan herriz herri erabili den testigantza liburua eta zapia.

Lasarte-Oriatik datorren ostegunean hilaren 11an pasatuko da martxa. Arratsaldeko 18:30ean harrera egingo diote arraunlariak Ibarra Zubian eta handik Donostiara abiatuko da. Hiriburuan 19:00etan egingo da ekitaldia bulebarran eta 20:30etatik aurrera

festa antolatu dute Oreetan. Herri afaria eta ikuskizun ugari izango dira.

## Aldarrikapenak

Martxa honek dituen lau aldarrikapen nagusien artean lehenengoa azpimarratu daiteke: emakumeen aurkako indarkeria salatuko du bereziki martxak. Euren ustez, "jendartearen gertatzen den giza eskubideen urraketa larrietakoa eta hedatuenetakoa da".

Bestalde, oraindik bermatzen ez diren emakumeen eskubide sexual eta erreproduktiboan alde egiten dute, batetik "abortu librea eta doakoa" aldarrikatzen segitzen dute eta "sexualitatea era askean eta heteronormatik at bizitzeko eskubidea osoa" ere bai.

Hirugarrenez, lan munduan emakumeen pairatzen duten prekaritatea salatzen dute "egungo ereduak eremu pribatuan emakumeek dohainik egiten dugun lana du oinarri".

Azkenik elikadura burujabetza aldarrikatzen du Emakumeen Mundu Martxak, natura eta lurra erabiltzeko orduan era egokian jokatu dezagun, luraren pribatizazioaren eta naturaren erabileraren desproporzionatuaren ereduak baztertuz. •